



Zarata eta Dardaretatik Babesteko udal ordenantza idatzi AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA bideratzeko iragarkia

39/2015 Legeak –urriaren 1ekoak, Administrazioen Publikoen Prozedura Erkideari buruzkoak– berrikuntzak ezarri ditu Administrazio publikoen legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiterakoan; besteak beste, herritarren iritzia eta etorkizuneko arauak ustez ukitu ahal dituen antolakunde ordezkagarrienen iritzia jasotzeko beharra.

39/2015 Legeak –urriaren 1ekoak, Administrazioen Publikoen Prozedura Erkideari buruzkoak– bere 133 artikuluan hau xedatzen du:

“1.- Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*
- b) Arau hori onestea, beharrezko eta egoki den.*
- c) Arauaren helburuak.*
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.*”

Oiartzungo Udalak Zarata eta Dardaretatik Babesteko ordenantza berri bat sustatu nahi du, gaur egungoa egokitu eta eguneratzeko, arau autonomikoarekin eta horren inguruan herritarrengan atzemandako sentsibilitatearekin bat etor dadin.

39/2015 Legeak ezartzen duen prozedura betetzeko, Oiartzungo Udalak erabaki du, “Zarata eta Dardaretatik Babesteko” udal ordenantza onartu aurretik, aurretiazko kontsulta publikoa burutzea.

Beraz, herritarrek, erakundeek eta elkarteek hala iritzi gero, parte hartu ahal izango dute ekarpenak aurkeztuz **2018ko urriaren 19a arte**, bi bide hauen bidez:

- Posta elektronikoaren postontzi honen bidez: ekarpenak@oiartzun.eus.
- Udalaren Erregistro orokorrean aurkeztutako iradokizunen bidez (Doneztebe plaza, 1) edo erregistro elektronikoaren bitartez, www.oiartzun.eus, ziurtagiri digitalaren bidez identifikatuta.

EKIMENAREN BITARTEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK

Zaratak eta dardarek herritarrengan sortzen dituzten eragozpenei aurre egiterakoan eta herritarrak babesterakoan, Udalaren jokabidea bideratzen duen gaur egun indarrean dagoen ordenantzak hutsune nabarmenak ditu eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko.

ORDENANTZA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA

Zarata eta Dardaretatik Babesteko udal ordenantza (GAO 1997/08/04ko 145.zenbakia) zaharkitua dago, 20 urte baino gehiago pasa baitira onartu zenetik eta legedian aldaketa esanguratsuak izan dira. Alde batetik, 2012ko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua, Euskadiko Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa argitaratuta xedatu



zen nahitaez egokitu behar direla zaratari buruzko udal ordenantzak aipatu den dekretu horretan jasotako aginduetara eta bestetik, 2016ko ekainaren 15eko agindua, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Eraikingintzaren Kontrol Akustikoari buruzkoa.

Bestalde, 2017ko ekainaren 28an egindako bilkuran onartu zen behin betiko izaeraz Oiarzungo Zarata Mapa.

Legedian izan diren aldaketak kontuan izanda eta zarata mapen bidez Oiarzungo zarataren diagnostikoa eginda, momentu egokia da Zarata eta Dardaretatik Babesteko udal ordenantza eguneratzeko.

ORDENANTZAREN HELBURUAK

Oiarzungo udalerrian 2012ko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak, Euskadiko Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoaren 6. artikuluan jasotzen diren eskumenak arautzea. Hain zuzen ere, udalen eskumenen artean ondorengoa dago:

“c) Hots-kutsadurari buruzko udal-ordenantzak prestatzea eta onartzea, bai eta daudenak araudi berrira moldatzea ere.”

IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ-ERREGULATZAILEAK

Zarata eta Dardaretatik Babesteko udal ordenantza arautzeari dagokionean, udalek 2012ko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak, Euskadiko Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoak dioena jarraitu behar dute.